



LESAKAKO UDALA (NAFARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

LESAKA

Derrigorrezko diru-bilketa

Administrazio honi egotz ez dakizkikeen arrazoiengatik Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 99.4 artikuluan xedatutakoaren arabera interesdunari edo horren ordezkariari jakinarazpena egiterik izan ez denez, eta, aipatu artikuluan xedatutakoaren arabera, egin diren jakinarazpen ahaleginak espedientean jasota, ediktu honen bidez dei egiten zaie ordainketa egitera behartuta daudenei eta horien ordezkariari aurrez aurre jakinarazteko espedientean jasotako prozeduren ondoriozko administrazio-egintzak. Agertzeko epea hamabost egun naturalekoa da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita: astelehenetik ostiralera, goizeko bederatzietatik arratsaldeko ordu bietara, bulego kudeatzailean (Iñigo Arista kalea 16, etxabea, 31007 Iruña). Epe horretan agerraldirik egin ez bada, jakinarazpena egintzat emango da, lege-ondorio guztietarako, agerraldia egiteko epea bukatu eta hurrengo egunean bertan.

OHARTARAZPENAK

Egitate horren aurka honako helegiteetako bat jar daiteke hautaz:

- Berraztertze errekurtso, egintza eman duen organoaren beraren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Premiamendu-prozedura, nahiz eta helegitea aurkeztu, Nafarroako Foru Erkidegoko Diru Bilketako Erregelamenduko 91. artikuluan xedatutako moduan eta baldintzetan soilik geldiaraziko da. Halaber, jakinarazten dizugu espedientea eskuragarri duzula, goialdean ageri den bulego kudeatzaile honen helbidean, egin nahi duzun edozein kontsulta egiteko.

Lesaka, 2019ko Azaroaren 28an.

Diru Biltzaile Exekutiboa,



Mikel Arrechea Lasaga.

DEITUAK DIREN ZORDUNAK

Jakinarazten den egitatea: Premiamendurako erabakia
153000/00009/2019

Expediente	Nombre	Concepto	Año/ Sem.	Importe Pendiente	Fecha de Apremio
	48719338W	Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa	2016/	28,60	04/07/2019
	48719338W	Landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa	2016/	4,09	04/07/2019
	48719338W	Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa	2017/	23,60	04/07/2019
	48719338W	Landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa	2017/	4,09	04/07/2019
	48719338W	Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa	2018/	23,60	04/07/2019
	48719338W	Landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa	2018/	4,09	04/07/2019
	B87236717	multak	2019/	65,00	04/07/2019